

ALDAIA JATETXEA (LARREA)
2013-10-19

Elgeako parke eolikora bisita bizia egin ondoren, eta Bio-Alaiko gure lagunek prestatutako menuaz bazkari legea egin eta gero, Arabako Batzarra egiteari ekin genion 50 bazkide inguruk.

Hasteko, 700 bazkideetik gora garela eta bazkide egiteko erritmoa gero eta biziagoa dela ospatu genuen. Udalekiko harremanei dagokienez, harremana dugu Otxandiokoarekin Bizkaian, Gipuzkoan Usurbil eta Adunakoekin eta Nafarroan Leitzakoarekin, oso interesatuta daude eta bazkide egiteko asmoa dute edo gurekin elkarlanean aritu nahi dute.

MERKATURATZE-TALDEA:

- Behin proba aldia amaituta, mailing baten bidez irailaren 30ean bazkide guztiei eskaini zitzaizen kontratua egitea.
- Gaur arte 200 kontratu-aldaketa-eskaera jaso ditugu. Eskerak kudeatzeko taldeak (6ren bat lagun) lortu du erantzuna ematea eta bidali ditu kontratu-proposamenak sinatzeko eta uneotan eskaera berrien ratioak normalizatzen ari dira. Dagoeneko 40 kontratu aldaketa egin dira eta beste 85 eskatuta daude eta sinatutako kontratu berri gehiago jasotzen dihardugu.
- Ez da denbora asko webgunean zuzenean kontratu-eskaera egiteko aukera jarri dela eta prozesatze atazetan hobekuntzak egin dira automatizazio handiagoa lortze aldera. Hartara, lana erraztuko da eta eskaerei erantzun egokiagoa eta azkarragoa eman ahal izango zaie.

KOMUNIKAZIO-TALDEA:

- Aurrerapen nabarmenenak webguneako edukien ingurukoak izan dira:
 - o Hasi dira edukiak (iraunkorrak batez ere) ingelesera eta frantsesera itzultzen. Lan handia egiten ari da itzulpen-taldea albisteak ere bi hizkuntz horietan ere argitaratzeko.
 - o Bazkide-mapa jarri dute ikusgai webgunean, bertan bazkide-kopurua eta herria lotuta azaltzen da.

- o Webgunearen funtzionamendua hobetzeko urratsak ematen ari dira, baita diseinu aldaketak egiten ere (bazkide egiteko esaterako).
- Baionan eginiko Alternatiben Herrixka ekitaldia eta gero, ondoren programatu diren ekitaldiak kontsultagai daude webguneko egitegian, hauexek dira laburbilduz:.

BIZKAIA:

- o Azaroak 16-17: Euskadiko Ekonomia Solidarioaren Azoka. REASEk antolatuta, Ensancheko merkatuan. Stand bat jarriko dugu eta antolaketa-bideoan parte hartzen dugu.
- o Hitzaldia Zierbenan, KIMA BERDEArekin Ortuellan urriaren 3an izandako arrakasta ikusita.

ARABA:

- o ELA sindikatuarekin ekainean eginiko ekitaldi bat aipatzen da.
- o Miranda eta Aiaraldea (Amurrio) azaro edo abendurako aurreikusita.

GIPUZKOA:

- o CALCUTA ONDOAN taldearekin batera "Pobrezia 0" astean parte hartu genuen eta kontsumo arduratsua bultzatzen duen SARETUZ taldearekin harremanetan sartu gara.

ITZULPEN-TALDEA:

- Goian aipatu den bezala webguneko edukiak eta beste zenbait dokumentu itzultzen ari dira eta berritasun moduan esan behar da pixkana-pixkana frantsesera eta ingelesera itzultzen hasita daudela.

SORKUNTZA-TALDEA:

- Lege eta arautegien aldaketak direla medio jarduera nahiko geldi dago baina bilera bat egitea aurreikusita dute.

Edozein modutara, taldeak aztertuko du kooperatibak instalatzeko proiektu bat aurkezteko ze aukera dauden eta zerbait interesgarria baldin badago,

asanbladan aurkeztuko du. Bestalde, taldeak segitzen du energia berriztagarrien eta GoieEner kooperatibaren aukeren inguruko materiala jasotzen, teknologia eta araudiaren inguruan egunean egoteko.

BESTE ZENBAIT GAI ETA KONTSULTA:

- Bazkide batek galdetzen du ea GoiEnerrek bonu soziala eskaini behar duen eta erantzuten diote bonu hori estatuak eskaintzen duela diru-sarrera urriak dituenentzat eta merkaturatze-enpresa erraldoiei baino ez zaiela ematen eta Goiener ez dela merkaturatze-enpresa erraldoia.
- Bestalde, beste bazkide batek, Someko partaide dela esaten duena, hitzaldiak ematen dituztenei formazioa ematearena mahaigaineratzen du eta bere burua eskaintzen du lan horretan laguntzeko. Barne formazioa egiteko beharraren inguruan eztabaidatzen da. Izan ere, formazioa jasoko luketenek nahikoa informazioa jasoko lukete eta animatu egingo lirateke eskarmentu handienekoek lagundurik informazio hitzaldietan parte hartzeko.
- Mahai gainean jartzen den beste kontu bat da GioEnerrek eraginkortasuna eta aurrezte bultzatzeaz gain, bazkideen eskura egongo den dokumentazioa, formazioa... jartzea. Honekin batera, hitzaldien bidez, pertsona erretiratuengana heltzea ere garrantzitsutzat jotzen da interesgarri eta hezigarri gerta dakiekeelako.

Eguna hain ondo joan izanaren ahaleginetan aritutakoei eskerrak emanez eta esperientzia berriro ere errepikatzekotan, agur esaten diogu elkarri.